Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

3441

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 24koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenan (Bizkaia) den Gallartako Bodovalleko aire zabaleko meategia monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Gallartako Bodovalleko aire zabaleko meategiak duen interes historiko-kulturala azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenan (Bizkaia) den Gallartako Bodovalleko aire zabaleko meategia, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskinean egindako mugaketa eta II. eranskinean egindako objetuaren eta bere osagaien deskripzioaren arabera, hala nola III. eranskinean atxikitzen den Babes Araubidea ere kontutan hartuz.

Espediente honi hasiera ematearen ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak sailkatutako ondasunentzat ezartzen duen babes-araubidea aplikatuko zaio, behin-behinean, Gallartako Bodovalleko aire zabaleko meategiari.

Bigarrena.– Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenan (Bizkaia) den Gallartako Bodovalleko aire zabaleko meategia, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematea, I. eranskinean agertzen den mugaketan oinarrituz, II. eranskineko deskribapena kontuan hartuz eta babes araubide gisa III. eranskinean agertzen dena ezarriz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

3441

RESOLUCIÓN de 24 de junio de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Corta de Bodovalle de Gallarta, sita en Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena (Bizkaia).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la competencia asumida, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés histórico-cultural de la Corta de Bodovalle de Gallarta y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Corta de Bodovalle de Gallarta sita en Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena (Bizkaia), según la delimitación que se determina en el anexo I de la presente Resolución y teniendo en cuenta la descripción que en el anexo II se establece de la misma y de sus elementos, así como el Régimen de Protección que se incorpora en el anexo III.

La incoación de este expediente determinará respecto a la Corta de Bodovalle, la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco para los bienes calificados.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor de la Corta de Bodovalle de Gallarta sita en Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena (Bizkaia), en base a la delimitación que figura en el anexo I, teniendo en cuenta la descripción del anexo II y estableciendo el régimen de protección que se incorpora como anexo III del mismo, para que durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente

eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen denari jarraiki. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Garraioak eta Hirigintza Sailei honako honen berri ematea: prozedura honi hasiera emateak eraginpeko aldeetan lur-zatiketak, eraikuntzak edo eraisketak egiteko udal-baimenen ondorioak eten egiten dituela, baita dagoeneko eman direnenak ere. Alde horietan ezinbestean eta gerorako utzi ezin daitezkeen lanak egin behar badira, betiere Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko da.

Laugarrena.– Indarrean dauden xedapenen arabera espedientearen izapideak jarraitzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Garraioak eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 24a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

Mugaketaren deskribapena.

Monumentu-multzo honen mugaketa etena da, haren ezaugarriak, elementuen egungo sakabanaketa eta inguruko meatze-paisaiak izandako aldaketak direla medio. Batetik, aire zabaleko meategia bera eta ikuspegia estaltzen duen lur-banda bat, lurrari egokitzen zaiona eta zabalera aldakorra daukana, daude. Mugaketa Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren eraikin berritik hasten da. Iparraldean eta mendebaldean BI-3756 errepideak (Gallarta-Ortuella) eta BI-2757 errepideak (Gallarta-Zugaztieta) mugatzen dute, El Campillo poligonoko biribilguneraino. Gero, ekialderantz, gailurren lerroari jarraitzen dio, Jarrillako gainaren kotetatik (mendebaldetik hego-

a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Hacer saber al Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, así como a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas, así como de los efectos de las ya otorgadas. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral.

Cuarto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Quinto.– Notificar la presente Resolución al Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de junio de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

Descripción de la delimitación.

La delimitación del presente conjunto monumental dadas sus características, la dispersión actual de los elementos y los cambios sufridos en el paisaje minero circundante, es discontinua. Por un lado se delimita la corta propiamente dicha y una banda de terreno de protección visual de anchura variable que se adapta al terreno. La delimitación parte del nuevo edificio del Museo de la Minería del País Vasco y viene fijada al Norte y Oeste por las carreteras BI-3756 (Gallarta-Ortuella) y BI-2757 (Gallarta-La Arboleda) hasta la rotonda del polígono de El Campillo. Posteriormente, hacia el Este sigue la línea de cumbres por las cotas del alto de la Jarrilla (de Oeste

ekialderantz, 224 m, 219 m eta 225 m), eta gero ekialderantz doa, Concha I meatzeko mailen goialdetik +220 metroko kotan, koordenada hauetaraino: X: 494481, Y: 4794880. Hortik aurrera, eskonbrotegien zonan, eremu babestua mugatzen duen lerroa +180 metroko kotara jaisten da (X: 494471, Y: 4794913). Altuera honetan eskonbrotegietan zehar jarraitzen du X: 494667, Y: 4795070 punturaino. Hemendik +185 metroko kotara igotzen da X: 494656, Y: 4795125 puntuan. Aurrerantzean Abra Industrialeko poligonoaren urbanizazioarekin bat egiten du X: 494551, Y: 4795297 puntuan. Azken gune horretatik poligonoaren urbanizazioaren bidea inguratzen du, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoraino.

Gaztelutxoarentzat mugaketa independentea zehaztu da, haren alboetako bakoitzean 10 metroko espazioa okupatzen duena. Hirugarren bat ere egin da; bertan etxebizitza eta ukuilu eraikinak eta Abanto-Zierbenako hiltegi zaharra sartzen dira. Azken mugaketa hori errepideek eta bideek mugatzen dute, aipatutako eraikinak dauden eremua mugatzen baitute. Iparraldean, ordea, arraste abereen ukuiluaren iparraldeko fatxadatik 10 metrora ixten da mugaketa.

Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketa honekin, eta industri ondarearen ikuspegitik dauzkan balio kultural garrantzitsuak kontuan izanik, Bodovalleko aire zabaleko meategiaz gain, adierazpen honetan berariaz aipatutako elementuak ere babestu behar dira, lekua eta meatzaritza eta industri paisaia interpretatu ahal izateko moduan.

a Sureste, 224 m, 219 y 225 m), y luego continua hacia el Este por la parte superior de los bancales de la mina Concha I en cota +220 m hasta el punto de coordenadas X: 494481 Y: 4794880. A partir de ese punto, en la zona de escombreras, la línea que delimita el ámbito protegido baja a la cota +180 m (X: 494471 Y: 4794913), siguiendo por las escombreras a esta altitud hasta el punto X: 494667 Y: 4795070. Desde aquí sube a cota +185 m en punto X: 494656 Y: 4795125 y a partir de aquí conecta con la urbanización del polígono de Abra Industrial en el punto X: 494551 Y: 4795297. Desde este último punto bordea el vial de la urbanización del polígono hasta el Museo de la Minería del País Vasco.

Una delimitación independiente se ha determinado para el castillete que ocupa un espacio de 10 m a cada uno de sus lados y una tercera donde se ubican los edificios de vivienda - cuadra y antiguo matadero de Abanto-Zierbena. En esta última la delimitación viene marcada por las carreteras y viales existentes que delimitan el espacio donde se encuentran los edificios, excepto al Norte donde la delimitación se cierra a 10 m de la fachada norte de la cuadra de los animales de arrastre.

Justificación de la delimitación.

Con la presente delimitación, y a la vista de sus destacados valores culturales a nivel de patrimonio industrial se protegen no solo la corta Bodovalle propiamente dicha sino los elementos expresamente señalados en la presente declaración de manera que se interprete el lugar y el paisaje minero industrial.


CASAS MINERAS
Y CUADRA
CORTA
Mina
Concha Segunda
meatze
CASTILLETE
Mina
Bodovalle
meatze
Cima El Prevention
Kastielzarra tontorra
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Lurraldea / Territorio:
BIZKAIA
Udalerria / Municipio:
ABANTO Y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENA
Data / Fecha: 22/06/2010
Eskala / Escala: 1:5.500
Plano / Plano:
CONJUNTO MONUMENTAL DE LA CORTA DE BODOVALLE
ESKALA / ESCALA
120 60 0 120 Meters

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Bodovalleko aire zabaleko meategia ebakidura geologiko handi bat da. 700 metro luze, 350 metro zabal eta 150 metro sakon da (itsas mailatik -37 m-ra). Bizkaiko meatzaritzan aire zabalean egon ziren ustiategi guztietatik azkena eta handiena da. Koten arteko aldea 254 metro ingurukoa da eta batez besteko diametroa 500 metrokoa da. Harmailadi ikaragarria dauka. Haren +50 kotan barruko meatzearen sarrera dago.

Concha 2.a, Manuelita, San Miguel, San Benito eta Ser meatzeen emakidetan dago, Ortuella eta Abanto herrietan. Meatze horiek XIX. mendearen amaieratik aurrera ustiatu ziren. Ybarra anaiek 120 hektareako azalerako zortzi ondasun erregistratu zituzten Abanto-Zierbena herrian, 1868ko azaroaren 20an, Concha izen orokorrarekin. Concha 2.a ondasun horietako bat da.

Aire zabaleko meategi honetan sartzeko pista bat dago. Lehenengo ekialdeko ezpondan zehar doa eta gero meategiaren hondo mailakatura iristen da. Altuera ezberdinetatik zehar ibili ahal izateko, bide bihurgunetsu bat egitea beharrezkoa suertatu zen.

Gaur egun, alderantziz jarritako kono baten forma daukan zulo bat dago. Harmailadi izugarria dauka, maila bihurriekin, 5-10 metro zabal eta 10-20 metro altu direnak. Beheko mailak, karbonatu eremuen daudenak, altuenak eta egonkorrenak dira, ez direlako kareharria eta marga bezain hauskorrak. Meategia amaierako posizioan dagoenez, leku batzuetan bermen zabalera gutxieneko zabalerara murriztu da eta, kasu batzuekin, hiru banku elkartzera iritsi da. Bermak, zati batean, gai xehe antzuz estalita daude, Aguminsaren kontzentrazio planta zaharretik datozenak. Goiko bankuetatik ateratako higakin solteez ere estalita daude. Higakinen maldak baimentzen duenean edo bermak higakinik gabe gordetzen direnean, belarkiak jaiotzen dira modu naturalean. Goiko bankuetan landaretza sortu da, modu naturalean.

Balkoira ematen duen angelua handia da, askotan ia bertikala. Horrek galarazi du haren ezpondak landaretzaz estal daitezela. Minerala eta gai antzua azaleratu dira. Beste fenomeno geologiko batzuk ere ikus daitezke gaur egun: failak, diaklasak, buzamenduak, akuinamenduak, aldaketa litologikoak eta abar. Meategiaren zona batzuk, hegoaldean, iraganean isurkinez bete ziren. Isurkin horiek, bankuetan banatuta, modu artifizialetan landaretzaz estali dira. Kanpoko eskonbrotegi zaharreko bi banku ere badaude.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

La Corta de Bodovalle es un gran corte geológico de 700 m de largo, 350 m de ancho y 150 m de profundidad (-37 m del nivel de mar). Se trata de la última y la de mayores dimensiones de todas las explotaciones que a cielo abierto existieron en la cuenca minera vizcaína. Una diferencia de cotas próxima a los 254 m y un diámetro medio de 500 m con una impresionante escalinata de gradas en cuya cota +50 nacería la entrada a la mina de interior.

Se ubica en las concesiones de las minas Concha 2.ª, Manuelita, San Miguel, San Benito y Ser, minas que venían siendo explotadas desde finales del siglo XIX en los términos municipales de Ortuella y Abanto. En realidad, la Concha 2.ª es una de las ocho pertenencias que con el nombre genérico de Concha y 120 hectáreas de superficie registraron Ybarra Hermanos el 20 de noviembre de 1868 en el término de Abanto y Ciérvana.

El acceso se realiza mediante una pista que discurre primero por el talud oriental para posteriormente instalarse sobre el fondo escalonado de la corta salvando los desniveles mediante un trazado sinuoso.

Hoy nos queda un hueco en forma de cono invertido con una escalinata de gradas con bancadas curvas de 5 a 10 m de ancho y 10 a 20 m de alto. Las bancadas inferiores, las que se corresponden con las zonas de carbonato, son las más altas, y estables por ser menos deleznables que las de calizas y margas. Por situarse la corta en su posición final, en determinados lugares se ha reducido la anchura de las bermas al mínimo indispensable y, ocasionalmente, se han unido hasta tres bancos entre sí. Las bermas se encuentran cubiertas parcialmente de finos estériles procedentes de la antigua planta de concentración de Agruminsa y derrubios sueltos provenientes de los bancos superiores. Cuando la pendiente de los derrubios lo permite, o las bermas se mantienen limpias de derrubios suelen estar revegetados de forma natural con herbáceas. En los bancos altos ha habido implantación de vegetación natural.

El ángulo de cara de balcón es elevado, muchas veces casi vertical, lo que impide que sus taludes se hayan cubierto de vegetación, presentando afloramientos del mineral y del estéril. Otros fenómenos geológicos como fallas, diaclasas, buzamientos, acuñamientos, cambios litológicos etc. son también visibles actualmente. Determinadas zonas de la corta, hacia el sur fueron rellenadas en el pasado con vertidos que, dispuestos en bancos se presentan revegetados de manera artificial y dos bancos de la primitiva escombrera exterior.

Meategiaren hondoa ere mailakatua da, iparrera sakontzen delarik. Iparraldean, hain zuzen ere, dauka kotarik sakonena: 38 metro itsasoaren mailaren azpitik.

Gaur egun hondoak ur-lamina bat dauka, –24 metrotara–. Artifizialki kontserbatzen da, lurpeko meatzearen barruan dagoen ponpaketa zentralari esker. Ur-laminaren batez besteko lodiera, beraz, 14 metro ingurukoa da. +48 metroko kotan ere galeria bat dago (Franco-Belga trenbide zaharra), goiko ura kanal baten bidez biltzen duena. Kanalera meategiaren hondotik ponpatutako ura ere iristen da. Kanal hori, lurpetik ibilbide bat egin ondoren, Granada errekara doa, eta ura ibai sarera isurtzen da.

Goiko mailetako bat, hego-ekialdean, Orconerako trenbidearen kutxan dago. Oraindik badagoen tunel baten bidez, San Migelgo geltokirako sarbidea zen. Han, Orconerak Campoamarren garbitutako mineralak zamatzen zituen eta Zugaztieta-Campomar aireko tranbia famatuan garraiatzen zituen. Langintza, 1968. urtea aldera, leherketa sistema handi baten bidez egiten zen. Takeoa edo itsasketa sekundarioa, berriz, batzuetan baino ez zen egiten. Leherketetarako zulaketak Drill-Masterrekin egiten ziren, eta 150 mm-rainoko diametroa zeukaten lehergailuekin. Horrela egiten zituzten leherketa handiak, inguruko bizilagunak haserre eta gogaituta zeuden arren. Halere, enpresa kexatu egiten zen, enpresako arduradunen ustez leherketa bakoitzean eskonbro gutxi ateratzen zelako, haiek askozaz ere gehiago espero baitzuten. Inguruko biztanleengan leherketek zeukan ondorio psikologikoak ezarritako mugengatik ateratzen zen hain eskonbro gutxi beraz.

Leherketetan erauzten ziren gai antzuak palekin biltzen ziren, 8 m^3-ko ontzia zeukatenak. 70 tonako kamioietan sartzen ziren eta meategiaren inguruan zeuden eskonbrotegietara bidaltzen zituzten: Campillo, Cirinal eta Zarzal.

Karbonatoa zamatzeko eta garraiatzeko Bucyrus-Eire hondeatzeko pala elektrikoak, 4,5 m^3-ko ontzia zeukatenak, erabiltzen ziren. Haien bidez dumperrak zamatzen ziren. Dumperrek minerala birringailu primarioraino, lurrean josita zegoeneraino, eramaten zuten. Makinaren oinarritik minerala 150 mm-ra txikitzen zen. Gero, kalapatxa baten bidez, lekuan bertan Franco-Belgaren galeria zaharrean zehar zihoan trena zamatu ohi zen. Trenak Cadegaleko kiskalketa labeetaraino (Ortuella) eramaten zuen zama. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Agruminsak eta Bizkaiko Labe Garaiak erakundeak (AHV) sinterizazio eta kontzentrazio plantak eraiki zituztenez gero, aldez aurretik kiskaltzea ez zen beharrezkoa. Beraz, minerala galeria beraren bidez itzultzen zen, zinta baten bidez, meategiraino. Han, minerala kamioietan zamatzen zen eta Bodovalleko kontzentrazio plantara eraman ohi zen. Planta hori meategiaren ondoan zegoen eta kiskaltze prozesuan alferrik galtzen zen karbonatoaren pisuaren % 32raino aurrezten zuen.

También el fondo de la corta es escalonado profundizando hacia el norte, que es donde se alcanza la cota más honda, -38 metros bajo el nivel del mar.

Actualmente el fondo mantiene una lámina de agua –24 m– que se conserva artificialmente gracias a una central de bombeo situada en el interior de la mina subterránea. El espesor medio de la lámina de agua es, por tanto de unos 14 m. También a + 48 m existe una galería (antiguo ferrocarril de Franco-Belga) que recoge las aguas superiores mediante un canal. Al canal también llega el agua bombeada del fondo de la corta. Dicho canal, tras un recorrido subterráneo, desemboca en el arroyo Granada, incorporándose las aguas a la red fluvial.

Una de las bancadas superiores, del extremo sureste, se corresponde con la caja del ferrocarril de Orconera, que a través de un túnel todavía existente, daba acceso a la estación de San Miguel, donde Orconera cargaba los minerales lavados en Campomar y transportados por su famoso tranvía aéreo La Arboleda-Campomar. El laboreo hacia 1968 se realizaba mediante el sistema de voladura grande, mientras que el taqueo o pega secundaria sólo se realiza en algunas ocasiones. La perforación para voladuras se realiza con Drill-Master y barrenos de hasta 150 mm de diámetro que producían grandes voladuras a pesar del descontento y el rechazo que provocaba en los vecinos próximos. Sin embargo, la empresa solía quejarse del bajo volumen de escombro de cada voladura, muy inferior al previsto y que había de justificarse por los límites impuestos por la repercusión psicológica que las voladuras tenían en la población vecina.

El material estéril arrancado en las voladuras era recogido por palas de 8 m^3 de cazo que cargaban camiones de 70 Tn que lo transportaban a las escombreras situadas en los alrededores de la corta: en el Campillo, en el Cirinal y el Zarzal.

Para la carga y transporte del carbonato se usaban palas excavadoras eléctricas Bucyrus-Eire de 4,5 m^3 de cazo que cargaban camiones dumper. Estos transportaban el mineral hasta una machacadora primaria empotrada en el terreno, desde cuya base, una vez triturado a 150 mm, y mediante una tolva en el propio terreno se cargaba el tren que transitaba por la antigua galería de la Franco-Belga que lo transportaba hasta los Hornos de Calcinación en Cadegal (Ortuella). A partir de los años setenta, con la construcción por parte de Agruminsa y Altos Hornos de Vizcaya (AHV) de las plantas de sinterizado y concentración, se hizo innecesaria la calcinación previa retornando el mineral por la misma galería mediante una cinta hasta la corta, llevándose el mineral mediante camiones a la planta de concentración de Bodovalle, instalada junto a la corta y que ahorraba hasta un 32% en peso del carbonato que se perdía en el proceso de calcinación.

Meategiaren barruan lurpeko meatzerako sarrera bat dago. Hirurogeiko hamarkadatik, itxi zen arte (1993an), 50 kilometro galeria baino gehiago zulatu zen. XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan, Europako bigarren burdin ustiategirik handiena izan zen, 500 langileko plantillarekin. Ustiatzeko metodoa ganbera eta zutabeena izan zen, azpimaila etzanekin. Horretarako, funtsean, ganbera handiak sortzen dira, lehergailu luzeen bidez zulatuta (25 metro), galeria edo azpimaila jakin batzuetatik. Meatzeak 60 ganbera dauzka, neurri ezberdinekin hobiaren potentziaren arabera. 25-30 metroko altuera, 100 metrorainoko hondoa, zutabeekin, eta 25 metroko zabalerako zuloak dauzkate. Galerien eta ganberen gaitasuna 8 milioi m^3-koa da. Hauxe izan zen Bizkaian martxan egon zen azken burdin meatzea, 1993an betirako itxi zen arte.

Bestalde, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren ondoko meategia (museoaren zabalpena meategiaren ertzean eraikitzen ari da), Bizkaiko meatzaritzari buruzko erakusketa-multzo interesgarri baten barruan sartuko da, ondare higigarria eta Bizkaiko meatzaritza arroaren berezko paisai eta kultur ondarea uztartzen dituena.

Monumentu-multzoan dauden elementu eta eraikinak:

Babes bereziko elementuak:

– Bodovalleko aire zabaleko meategia eta elementu geologikoak.

– Orconerako trenbidearen lur-berdinketako obra.

– Franco-Belga trenbidearen galeria +48 kotan.

– Plano inklinatua, jardinera eta beraiekin lotutako elementuak.

– Ezequiela meatzeko gaztelutxoa.

Oinarrizko babeseko elementuak:

– Gallarta zaharreko meatzarien etxeak.

– Peñusco Mendiola edo Concha V meatzean arrasterako erabiltzen ziren abereen ukuilua.

– Hiltegiaren jatorrizko eraikina (gaur egun Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa dena).

Meategian elementu geologiko interesgarriak ikus ditzakegu. Faila nagusian, mineral ebakidurak, burdinazko karbonato oxidatuak, marga eta kareharriekin, failako mugimendu tektonikoak (lur-jausiak), bere jauziekin, eta mineral haztegiaren buzamenduak horma oxidatuen kontaktuekin.

Oraindik kontserbatzen dira Franco-Belga trenbide zaharraren sarrera eta lur-berdinketaren obra, eta Orconeraren trenbidearen lur-berdinketaren obra iparmendebaldeko goialdeko mailetako batean, oraindik badagoen tunel baten bidez, San Migelgo geltokirako

En el interior de la corta existe un acceso a la mina subterránea donde, desde los años sesenta hasta su cierre en 1993, fueron excavados más de 50 kilómetros de galerías. Con una plantilla que llegó hasta los 500 operarios, en la década de los años setenta del siglo XX se convirtió en la segunda explotación de hierro más grande de Europa. El método de explotación utilizado fue el de cámaras y pilares con subniveles abatidos, que consiste en esencia, en la creación de grandes cámaras con perforación de barrenos largos (25 m) desde ciertas galerías o sub-niveles. La mina dispone de 60 cámaras de medidas variables, la potencia del yacimiento oscila entre 25/30 m de altura por hasta 100 m de fondo con pilares y huecos de 25 m de anchura. La capacidad de sus galerías y cámaras es de 8 millones de m^3. Esta fue la última mina de hierro que se mantuvo en activo en Bizkaia, hasta su cierre definitivo en el año 1993.

Por otra parte, la corta junto al Museo de la Minería del País Vasco, cuya ampliación se construye actualmente en el borde de la misma, va a formar parte de un interesante conjunto expositivo sobre la minería vizcaína aunando el patrimonio mueble con el patrimonio paisajístico y cultural característico de la cuenca minera vizcaína.

Elementos y edificios incluidos en el Conjunto Monumental:

Elementos de protección especial:

– La corta Bodovalle y elementos geológicos.

– Explanación del ferrocarril de la Orconera.

– Galería del Ferrocarril de la Franco- Belga en la cota +48.

– Plano inclinado, jardinera y los elementos vinculados a los mismos.

– Castillete de la Mina Ezequiela.

Elementos de protección básica:

– Casas de mineros del antiguo Gallarta.

– Cuadra de animales utilizados en el arrastre de la mina Peñusco Mendiola o Concha V.

– Edificio original del matadero hoy Museo de la Minería del País Vasco.

En la corta son visibles elementos geológicos de interés. La falla principal con los cortes de minerales carbonatos de hierro oxidados con margas y calizas, los movimientos tectónicos (corrimientos) de dicha falla con sus saltos y los buzamientos del criadero de mineral con los contactos de sus muros oxidados.

También se conserva la entrada y explanación del antiguo ferrocarril de la Franco Belga, la explanación del ferrocarril de Orconera en una de las bancadas superiores del extremo noroeste, a través de un túnel todavía existente que daba acceso a la estación de San

sarbidea zena. Han, Orconerak Campoamarren garbitutako mineralak zamatzen zituen eta aireko tranbian garraiatzen.

Beste elementu bat tailerra eta irteerako goiko aldea, Abra Industrialeko bulegoen ondokoa, komunikatzen dituen plano inklinatua da. Planoak 4,50 metroko zabalera, 3,2 metroko altuera eta 800 metroko luzera ditu, % 25eko maldarekin. Planoan jardinearen errailak eta garraio-zinta zeuden.

Ezequiela meatzeko gaztelutxoa ez zen eraiki meatzariak lurpeko ganberara iritsi ahal izateko, baizik eta lan guztiak aireztatzeko tximinia gisa. Metalezko egitura txarrantxatua dauka. Goiko aldean etxola bat dauka, eta bertan 80 metroko tximinia eraikitzeko erabili zen kableari eragiten dioten gurpilak daude gordeta. Bertan haizagailuak jarri ziren, meatzeko aire zikina ateratzeko.

